

**GERNIKA-LUMO**  
**2014-2017 EPERAKO EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANA (ESEP)**  
**ESPARRU BAKOITZERAKO EKINTZAK ETA JARDUERAK**

## **SARRERA**

Nabarmena da euskarak Gernika-Lumon egin duen **aurrerakada azken 25 urteetan**. Gure aurrekoek, urte zailetan, lan eskergea egin zuten eta hori gogoan izatekoa eta eskertzekoa da.

Euskara hizkuntza ofiziala denetik, hainbat urrats eman dira sendotu dadin, lege-babesa, baliabideak, laguntzak, atxikimenduak eta abar. Bide horretan, Gernika-Lumoko Udalak bere ekarpena egin eta eutsi egin dio udalerrri mailan euskarari bultzada emateko lanari.

Hori guztia, gure hizkuntzaren **normalizazioa helburu** eta, horretarako, euskararentzat arnaguneak sortzeari ekin zaio makalik daukagun esparruetan, erabilerarako baldintza egokiak finkatuz. Horixe dugu erronka, ezagutzatik erabilerarako urratsa ematea euskaradunok, **euskaraz bizi izateko hautua egitea**. Egindakoarekin pozik egonda ere, **zeregin erraldoia aurretik** daukaguna.

Egin behar horretarako, ezinbesteko tresna izan dugu **EUSKARA BATZORDEA**, aurreko plangintzaldietarako hausnarketa eta aholkularitza gune. Aurrerantzean, Euskara Batzordearen garrantzia aintzat hartuz, gizarte esparru desberdinetako partaidetza areagotzeko bideak jorratu beharra dakusagu (lan- mundua, merkataritza, kirola,...).

2014-2017 eperako Plan Estrategikoa moldatzea dagokigun une honetan, aipagarria dugu 2012ko abenduan abian jarri zen **PARTAIDETZA PROZESUA**, Euskara Batzordea bitarteko, eta horri lotutako **DINAMIZAZIO SAIOAK** ([www.gernika-lumo-euskaraz.com](http://www.gernika-lumo-euskaraz.com)). Prozesu horren emaitzak funtsezkoak izan dira honako Plan Estrategikoa moldatzeko eta, horri eskerrak, begi askoren ikuspuntutik plana errealitatera hobeto egokitu ahal izan da, duda barik. Beraz, geure eskerrona dinamizazio saio horietan ekarpenak egin eta lanean aritu izan diren guztiei. Argitu behar, prozesu hori guztia EBPNren arabera burutu dela.

Horren ostean etorri da Eusko Legebiltzarrak EBPNren ordezkari onartua daukan Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) hartu eta bien arteko korrespondentziak egitea. Horren emaitza dugu jarraian dagoen Plana.

Oharra.- Orain arteko **ibilbidearen isla izateko, txosten honen I. eranskinera jo behar da** (2009-2013 epeko Plan Estrategikoaren balantzea eta egungo egoeraren diagnostikoa -1. atala-). Plan berriaren **partaidetza prozesua nola bete den jakiteko, II. eranskinera jo**.

## ARGIBIDEAK - OHARRAK:

### - Ekintza Planaren egitura (ESEPen arabera)

1. Helburu estrategikoa: Euskararen jabekuntza	2. Helburu estrategikoa: Euskararen erabilera	3. Helburu estrategikoa: Euskara elikatzea.	Helburuak lortzeko zehar lerroak
<b>Esparruak:</b> 1.- Familia bidezko transmisioa 2.- Irakaskuntza 3.-Euskalduntze-alfabetatzea	<b>Esparruak:</b> 4.- Administrazioa 5.- Gune geografiko euskaldunenak 6.- Arlo sozio-ekonomikoa 7.- Aisia eta kirola	<b>Esparruak:</b> 8.- Liburugintza 9.- Kulturgintza 10.- Publizitatea 11.- Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea 12.- Hedabideak 13.- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak	<b>- Euskararen aldeko motibazioa:</b> 14.- Sentsibilizazioa eta motibazioa <b>- Euskararen zabalkundea:</b> 15.- Barruko proiektzioa 16.- Kanpoko proiektzioa

### - Kodearen esanahia (adibidez 1.1.1.2 ekintza):

- 1. esparrua (“Familia bidezko transmisioa”)
- 1.1. Neurria (“Sentsibilizazioa eta motibazioa etengabe lantzea –Toki Erakundeak-”)
- 1.1.4. Ekintza (“Gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako produktuak ezagutarazi eta eskura jartzea”)

### - Testuaren (letraren) koloreak adierazten duena:

- **Letra beltzez** adierazita daude ekintzak (“1.1.4.- Gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako produktuak ezagutarazi eta eskura jartzea ...”). Bigarren zutabearen daude azpiekintzak/jarduerak, aurreko plangintzaldian (2009-2013) indarrean egondako ekintzetatik hartuak.
- **Letra urdinez** dagoen testuak (“...**SOBREA /MATERIALA: ku-ku, liburuxka...**”), adierazten du gaur egun ekintza hori zelan garatzen den.
- **Letra gorritz** dagoenak (“**Berria.-... Pediatriarekin sakondu elkarlana (emagina). Erabilera + transmisioa...**”) adierazten du Plan Estrategiko berrirako dinamizazio saioetan jasotako ekintza-proposamena dela (batzuetan beste ekintza batean txertaturik daude, horrekin bat egiten dutelako, eta, beste batzuetan, ekintza berezitat hartu izan dira, berri-berriak direlako).


# I. Helburu estrategikoa: Euskararen jabekuntza

## 1.- Familia bidezko transmisioa

ESEP - EKINTZAK	AZPIEKINTZAK (EBPNren arabera egindako dinamizazio saioretatik hartutakoak)	Ardurad	Laguntzaileak Eragileak	Noiz Urteko sasoia
<b>1.1. Sentsibilizazioa eta motibazioa etengabe lantzea (Toki erakundeak)</b>				
1.1.4.- Gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako produktuak ezagutarazi eta eskura jartzea	1.1.4.1.- Haur jaio berrien gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako bildumak igorri: ipuinak, kantuek, euskarazko gela apaingarriak, euskal izendegia... (SOBREA /MATERIALA: ku-ku, liburuxka,...)	HNT1	- Erregistroa - Anbulatorioa - Alkarbide	Urtero
	1.1.4.2.- Euskarazko produktuen katalogoa ezagutzera eman: web orrian, gurasoei bidali, udalaren menpeko guneetan eskuragarri jarri... EPK KANPAINA	HNT1	- Eskolak - Jostailu dendak - Alkarbide	Urtero
	1.1.4.3.- Haurrentzako zerbitzuei buruzko informazioa ezagutzera eman. [Haurren zaintzaileen zerrenda; euskarazko filmen zerrenda ezagutzera eman; eta gisakoak].. LAN POLTSAK	HNT1	- Eskolak - Guraso elkart.	Bi urterik behin
1.1.6.- Gurasoengan eragitea euren hizkuntza ohiturak seme-alabengan duen eraginaz jabe daitezen	1.1.6.1.- Gurasoengan eragin euren hizkuntza ohiturak seme-alabengan duen eraginaz jabe daitezen. [Aurrematrikulazio kanpainak; hitzaldiak, jardunaldiak, ikastaroak,...]ESKOLAK /NORMALKUNTZA PLANAK	HNT1	- Udal Eskola Kontseilua - Alkarbide	Urtero
	1.1.6.2.- Irakaskuntza zentroetako Normalkuntza Planetan gurasoekiko normalkuntza ekintzak sendotu Berria.- Gurasoei begirako normalizazio proiektuak definitu ikastetxeekin (hitzaldiak, euslidersak,...)	Eusk. Zin. Hezk. Zin.	- HNT1 - Guraso elkart.	2014 2016

1.1.7.- Bikote euskaldunen zein mistoen kasuan, seme-alabekiko hizkuntza jokabideak lantzea - AZPIEK. (pediatria) - AZPIEK. (anbulatorioa)	1.1.7.1.- Guraso berrientzako saio erakargarriak antolatu euskaraz: haurrak nola hezi, nola elikatu ondo, gaixotasunei nola egin aurre... (Kantu, ipuin eta jolasak,...)	Eusk. Zin.	- Anbulatorioa (pediatria, emagin - HNT1	2014 2016
	1.1.7.2.- Pediatriarekin sakondu elkarlana (emagina). Erabilera + transmisioa Berria.- Anbulatorioarekin ere harremanak sendotu (pediatria, matrona, haurdunaldiko taldeak,..). Gurasoekin bereziki landu.	HNT1	Eusk. Zineg. Pediatria zerbitzua	2014 2016
<b>1.3. Familia barruan euskararen erabilera sustatzea (Toki erakundeak)</b>				
1.3.1.- Eskolatik kanpo zein eskolan bertan ere gurasoek eta umeek euskara erabiltzeko guneak sortzea eta elikatzea (AZPIEK)	1.3.1.1.- Familia barruan euskararen erabilera bultzatzeko egitasmo zehatzak martxan jarri: Gurasolagun... [“Kontaidazu ipuin bat” lehiaketa, “Mihiluze” lehiaketa, Jolasen Eguna, “Euskera olgetan errotu...)..FAMILIA LEHIAKETA	HNT1	- URE elkarte - Gaztedi Arloa	Urtero
	1.3.1.2.- Ekitaldiak antolatu familia osoa aintzat hartuta, eta ikastetxea eta guraso elkarteekin elkarlanean: Gabonetan, Santo Tomas egunean, Santa Ageda egunean edo tokian tokiko ohiturak kontuan hartuta... JAI ARLOA / URTEAN ZE HAR	HNT1	- Jai Arloa - Udal Eskola K.	Urtero
	1.3.1.3.- Udan ludoteka familiarra antolatu (“familia lehiaketa...”?)	HNT1	- URE elkarte - Gaztedi Arloa	Urtero
	1.3.1.5.- Jolasleketan eragiteko egitasmoak (Urtxintxa, “Parketarrak”)	HNT1	- URE elkarte - Gaztedi Arloa	Urtero
	1.2.1.1.- Hitzarmenak sinatu instituzioekin eta gizarte eragile desberdinekin, urtean zehar familia osoari begirako ekintzak garatzeko	Eusk. Zin.	- HNT1 - Osakidetza - Mankomunitat	2014 2016

## 2.- Irakaskuntza

ESEP - EKINTZAK	AZPIEKINTZAK (EBPNren arabera egindako dinamizazio saioretatik hartutakoak)	Ardurad	Laguntzaileak Eragileak	Noiz Urteko sasoia
<b>2.1. Euskararen jakite-maila eta erabilera hobetzeko prestakuntza sendotu eta metodologia eta baliabide berriak garatzea</b>				
2.1.8.- Ikastetxe bakoitzean hizkuntzaren irakaskuntza eta erabilera uztartuko dituen jarduera-plangintza egitea, hau da, hizkuntza-proiektua egitea	2.1.8.1.- Plan sektorial bat garatu (urteko eskolaz-kanpoko plangintza).	Hezk. Zin. Eusk. Zin.	- HNT1 - Udal Esk. Kont. - Berritzegunea	Urtero
	2.1.8.2.- Ikastetxeetan euskararen <u>normalkuntza planak</u> garatzeko laguntzak eskaini eta koordinatu.	“ “	“ “	Urtero
	2.1.8.3 - Udal Eskola Kontseilutik koordinatzen ez diren eskolaz-kanpoko ekintzetarako <u>diru laguntza deialdia</u> . 	“ “	“ “	Urtero
<b>2.3. Ahozko hizkuntza-jarduna lantzea, bereziki eremu soziolinguistiko erdaldunagoetan</b>				
2.3.1.- Ahozko jardunaren ahuleziak gainditzeko, irakasle zein ikasleei begirako estrategia egokia garatzea	2.3.1.1.- <b>ARRUE</b> ikerketako metodologia erabilia. <b>Haur Hezkuntzako 5 urteko geletan azterketa sakona egin, gurasoen transmisioa dela eta. Transmisioa jorratzeko proiektua abiatu (Berritzegunea / Udal Eskola Kontseilua)</b>	HNT1	- Udal Esk. Kont. - Berritzegunea	2015
<b>2.4. Euskararen erabilera soziala hezkuntza esparruan aztertu eta bultzatzea</b>				
2.4.4.- Irakaskuntzarako ez ezik eskolako ekintza guztietarako euskara harreman-hizkuntza gisa bultzatzea (bestelako jardueren egitarau eta programa zehatzen bitartez)	2.4.4.1.- <u>Bertsolaritza</u> Gernika-Lumon urteroko programa sustatu eta lagundu (irakaskuntza zentroetan Bertsozale elkartearen bitartez)	Hezk. Zin. Eusk. Zin.	- HNT1 - Udal Esk. Kont. - Berritzegunea	Urtero
	2.4.4.2.- <u>Euskara Zine</u> aretoetara programan parte hartzera animatu eta hori gauzatzeko baliabideak eskaini (aretoak, diru laguntza,...)	“ “	“ “	Urtero

	2.4.4.3.- Ahozko adierazmena indartzearen <u>antzerkingintza</u> sustatu Eskola munduan (jardunaldiak, diru laguntzak,...)	“ “	“ “	Urtero
	2.4.4.4.- Idazmena sendotzeko, <u>Idazlan Koaderno</u> egitasmoa garatu eta inplementatu LH/DBH/Batxilergoko ikasleen artean.	“ “	“ “	Urtero
	2.4.4.5.- Irakurzaletasuna bultzatu DBHko ikasleen artean ( <u>Gaztezulo aldizkariaren</u> 6 hilabeteko harpidetza doan.			
<b>2.5. Ikastetxearen eta haren ingurune hurbilaren arteko euskarazko harremanak sustatzea (Toki erakundeak)</b>				
2.5.1.- Gizarte, aisia eta kultur taldeekiko loturak sendotzea (AZPIEK)	2.5.1.1.- Informazioa eman herritarrei euskarazko eskolaz kanpoko prestakuntza zerbitzuez: triptikoak osatu, udaleko aldizkarian agertu, web orrian ezagutzera eman...	HNT1	- Guraso elkart. - Udal Esk. Kont	Urtero
<b>2.6. Ikasle etorkinak euskarara hurbiltzeko programak diseinatu eta garatzea</b>				
2.6.1.- Kanpotik etorritako nerabeengan arreta berezia jartzea eta haietzako programa bereziak garatzea	2.6.1.1.- DBHko <u>Ikasle etorkinei ikastaro bereziak eskaini, euskara ikasi eta sendotzeko</u>	Hezk. Zin. Eusk. Zin.	- HNT1 - Udal Esk. Kont. - Berritzegunea	
2.6.2.- Kanpotik etorritako gurasoei informazioa eta laguntza emateko programak garatzea, sentsibilizazioaren mesedean (AZPIEK)	2.6.2.1.- <u>Jarraipen zehatza egin matrikulazioari etorri berriei dagokienean hurrengo urteetan. (Berritzegunea)</u>	HNT1	- Eusk. Zin. - Inmigrazio tek	Urtero
	2.6.2.2.- <u>Gizarte zerbitzuekin elkarlanean aritu, etorri berriekiko gizarteratze lanean matrikulazioari begirako hizkuntza irizpideak kontuan izan daitezen (Mankomunitatea / Lanbide Ekimenak / EPA)</u>	Eusk. Zin.	- HNT1 - Inmigrazio tek - Lanbide - EPA	Urtero

### 3.- Euskalduntze-alfabetatzea

ESEP - EKINTZAK AZPIEKINTZAK (EBPNren arabera egindako dinamizazio saioetatik hartutakoak)		Ardurad	Laguntzaileak Eragileak	Noiz Urteko sasoia
<b>3.8. Gelaz kanpoko egitasmoak sustatzea, erabilera eta praktika uztartuko dituztenak (Toki erakundeak)</b>				
3.8.2.- Mintzapraktika egitasmoak (Mintzalagun, Berbalagun, Gurasolagun) zabaltzea	3.8.2.1.- "Mintzalagun" proiektua jorrazeko taldeak sortu herrian (atzeritarrak eta adin guztietako euskaldun zaharrak eta berriak aintzat hartuta). Formula berriak aztertu: bazkari-laguna, kirol-laguna, guraso-laguna.... <b>BERBALAGUN</b>	AEK tekn.	- Eusk. Zin. - HNT1 - Udal Euskalt - Bust. Eusk. Bizi	Urtero
	3.8.2.2.- Helduen adin-taldea kontuan hartu. Oso zabala da eta kasu gutxien egiten zaiona (berariaz behintzat). Berbalagun indartu eta Hizkuntza portaeretan eragiteko tailerrak antolatu.	Eusk. Zineg.	- Euskalt. zuzendariak - Berbalaguneko Talde Eragilea	Urtero



## II. Helburu estrategikoa: Euskararen erabilera:

### 4.- Administrazioa

ESEP - EKINTZAK		Ardurad	Laguntzaileak Eragileak	Noiz Urteko sasoia
<b>4.1. Administrazioan euskararen erabilera sustatu eta bermatzea (Toki erakundeak)</b>				
4.1.1. Herri-administrazioek (EAEko administrazio orokorrak, Foru Aldundiek, Udalerriek, Osasun Zerbitzuek, Herrizaingoek, Justizia administrazioak, sozietate publikoek eta zuzenbide pribatuko entitate publikoek) hizkuntza kudeaketako planak onartu eta betetzea <b>ERABILERA PLANA</b>		Eusk. Zineg.	Talde Eragilea (udala)	Urtero
4.1.2. Beren lanean euskaraz jarduteko gai diren herri-langileek eta administrazioekiko harremanetan euskaraz jarduteko gai diren herritarrek euskararen erabilera era progresiboan areagotzeko erakunde bakoitzean neurriak hartzea <b>ERABILERA PLANA</b>		Eusk. Zineg.	Talde Eragilea (udala)	2014 2017
<b>4.2. Euskara ere lan hizkuntza izateko neurriak hartzea (Toki erakundeak)</b>				
4.1.5. Erakundearen agerpen publikoetan euskararen presentzia eta lehentasuna bermatzea <b>ERABILERA PLANA</b>		Eusk. Zineg.	Komunikazio arloa	2015 2017
4.1.6. Erakundearen ahozko kanpo zein barne-harremanetan euskararen erabilera gehitzeko neurriak hartzea, betiere herritarren hizkuntza-aukera errespetatuz <b>ERABILERA PLANA</b>		Itz-Trebat	HNT1	2014 2016
4.1.7. Erakundearen idatzizko kanpo zein barne-harremanetan euskararen erabilera gehitzea, sortze-lana areagotuz, komunikazioen kalitatea zainduta eta edozein euskarritan <b>ERABILERA PLANA</b>		Itz-trebat	HNT1	Urtero
4.1.8. Herri Administrazioetako kargu publikoek euskararen erabilerarekiko jarrera eraginkorra agertzea, bai herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko, baita euskara ere lan hizkuntza izan dadin <b>ERABILERA PLANA</b>		Eusk Zineg.	HNT1	2015 2017
<b>4.3. Langileen euskara-gaitasuna etengabe hobetzeko neurriak hartzea (Toki erakundeak)</b>				
4.3.4. Euskara lan hizkuntza duten langileentzako prestakuntza iraunkorra bultzatzea (prestakuntza orokorra euskaraz nahiz euskara erabiltzeko prestakuntza berezia) <b>ERABILERA PLANA</b>		Itz-trebat	Eusk Zineg.	Urtero

4.3.5. Legeriak eta kudeaketa planek ezartzen dituzten irizpideak ez ezik, lanpostuei hizkuntza eskakizunak ezartzerakoan bi faktore kontuan hartzea: lanpostuaren beharrizan komunikatibo nagusiak, alde batetik, eta zerbitzuemaile nahiz zerbitzu-hartzaile diren euskal hiztunen hizkuntza ezaugarriak, <a href="#">ERABILERA PLANA</a>	HNT1	Itz-Trebat Eusk Zineg.	Urtero
<b>4.4. Hizkuntzak erabiltzeko irizpideak finkatzea (Toki erakundeak)</b>			
4.4.1. Herri-administrazio bakoitzak bere esparrurako Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak (HOEI) finkatzea. HOEIak ondorengo arloetan aplikatzekoak izango dira, besteak beste: herritarrekiko ahozko eta idatzizko komunikazioa, administrazio bakoitzeko lan-arlo ezberdinen eta herrilangileen arteko ahozko nahiz idatzizko komunikazioa, administrazioen arteko idatzizko komunikazioa, komunikazio telematikoak, ekitaldi publikoetako hizkuntza erabilera, itzulpengintza, korredakzioa, erregistroa, tresna eta aplikazio informatikoak, internet eta intranet, argitalpenak, iragarpenak eta publizitatea, hizkuntza paisaia, herri-langileen etengabeko prestakuntza profesionala eta euskara-gaitasunaren hobekuntza, euskarazko komunikazio idatziaren kalitatea eta komunikagarritasuna, eta kontratazioarako hizkuntza-baldintzak <a href="#">ERABILERA PLANA</a>	Eusk Zin.	HNT1 Itz-Trebat	2014 2017
4.4.3. Kontratazio-hizkuntza betebeharrak ezartzea eta betetzen direla bermatzea (esleipen prozeduretan baldintza-agirietan jasotzea) <a href="#">ERABILERA PLANA</a>	HNT1	Eusk. Zineg. Itz-Trebat.	Urtero
4.4.4. Elkarte eta enpresei diru laguntzak ematerakoan edo jarduera publikoetarako baimenak ematerakoan edo udal instalazioen erabileraren lagapena egiterakoan hizkuntza irizpideak ere finkatzea eta hizkuntza-baldintzak betetzen direla bermatzea <a href="#">ERABILERA PLANA</a>	HNT1	Eusk. Zineg. Itz-Trebat.	Urtero
<b>4.5. Administrazioen arteko elkarlana areagotzea (Toki erakundeak)</b>			
4.5.1. Herritarren hizkuntza eskubideak bermatu eta zerbitzu publikoaren kalitatea hobetzeko helburuarekin, indar berezia egitea osasun-zerbitzuen emaileen euskara-gaitasuna gehitzeko (pediatria zerbitzuetan, familia medikuen lanpostuetan, lehen atentzioko zentroetan, adinekoen eta menekotasun ezberdinetako pertsonen atentzio-zerbitzuetan, eta zerbitzu-hartzaileekin zuzeneko harreman jarraitua duten lanpostuetan; erizainak, eta abar) <a href="#">ERABILERA PLANA</a>	Eusk. Zineg.	HNT1	2014 2016
4.5.2. Herritarren hizkuntza eskubideak bermatu eta zerbitzu publikoaren kalitatea hobetzeko helburuarekin, indar berezia egitea herritarren segurtasuna bermatzea helburu duten polizia zerbitzuetan, eta arreta berezia jartzea herritarrekin zuzeneko harremana duten lanpostuetan ahozko komunikazioa euskaraz ere izan dadin. <a href="#">ERABILERA PLANA</a>	Eusk. Zineg.	HNT1	2015 2017

<b>4.6. Kanpoko komunikazioan euskararen erabilera gehitzea (Toki erakundeak)</b>			
4.6.1. Komunikazio planak garatzea euskara erabiltzeko gai diren herritarrek euskararen hautua egin dezaten lagundu eta sustatzeko <b>ERABILERA PLANA</b>	HNT1	Itz-trebat	Urtero
4.6.5. Iragarki, publizitate eta kanpainetan euskararen presentzia areagotzea, komunikagarritasuna zainduta, eta betiere legeak ezarritako gutxienekoari kalterik egin gabe <b>ERABILERA PLANA</b>	Eusk. Zineg.	Komunikazio arloa	Urtero

## 5.- Gune geografiko euskaldunenak

ESEP - EKINTZAK	AZPIEKINTZAK (EBPNren arabera egindako dinamizazio saioetatik hartutakoak)	Ardurad	Laguntzaileak Eragileak	Noiz Urteko sasoia
<b>5.1. Herritarren gehiengo nabarmena elebidun izanik euskaldunenak diren gune geografikoetan euskara lehen hizkuntza funtzionala izan dadin neurriak hartzea (Toki erakundeak)</b>				
5.1.2.- Udalerri euskaldunenetako osasun, justizia eta gizarte zerbitzuetan euskararen erabilera lehenestea	5.1.2.1.- Ongizate arloarekin elkarlan berezia eratu, bere menpeko erakundeekiko harremanetan hizkuntza irizpideak txertatzeko.	Eusk. Zin.	- HNT1	2014
5.1.4.- Udalez gaindiko administrazioek gune euskaldunenetako herritarrei ematen dieten zerbitzua euskaraz eskaintzea	5.1.4.1.- Alkarbiden lan-mahai berezia sortu. Aldundia bitarteko horrelako erakundeetan eragiteko protokoloak finkatzearen.	HNT1	- Alkarbide - Eusk. zin.	2014 (urtero jarraipena)
5.1.6.- Helduentzako edozein arlotako etengabeko prestakuntza euskaraz eskaintzea	5.1.6.1.- Herritarrengan modu erakargarrian eragin, dakiten euskara hori plazan ere erabiltzeko. Ekimenak definitu eta martxan jarri, herriko eta inguruko eragileekin elkarlanean:...(euskaraz bizi karpeta, Errenta aitortpena euskaraz, Gidabaimena euskaraz,...).	HNT1	- URE elkarte - Bust. Eusk. Bizi	Urtero
	5.1.6.2.- Erabilera gehiago sustatu (tailerrak, hiztegiak, sentsibilizazio kanpainak,...)	HNT1	Eusk. Zineg. Kultur Etxea / Kiroldedia Gaztelekua	Urtero
	5.1.6.3.- Helduentzako era guztietako ikastaro eta ekimenak antolatu euskaraz: erlajazioa, sukaldaritza, lehen arreta, dantza ikastaroak, reflexoterapia...(Berbalagun, Kultur Etxea,...)	HNT1	- Berbalagun - Kultur Etxea	Urtero
5.1.8.- Arreta berezia jartzea haur eta gazteentzako eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz izan daitezen, jarduera-eskaintza egiazki zabala izan dadin eta eskaintza horren garapenean hezkuntza komunitate osoak (hezitzaileak, gurasoak, ikasleak) eta herri-administrazioek parte har dezaten	5.1.8.1.- Euskara Batzordean ikastetxeen partaidetza ziurtatu (deialdirako zerrendan daude)	Eusk. Zin.	- HNT1	Urtero
	5.1.8.2.- Udal Eskola Kontseilua bilgune, ikasturteko eskolaz kanpoko egitarau komunari buruzko hausnarketa burutu (irailean eta urrian)	Hezk. Zin. Eusk. Zin.	- HNT1 - Irakaskuntza zentroak	Urtero

5.1.9.- Aisialdiko ekintzetan, kultur jardueretan eta erlijio jardueretan ohiko eskaintza euskarazkoa izatea bermatzea	5.1.9.1.- Udalak antolatzen dituen ikastaroetan euskarazkoak bultzatu (Jabekuntza eskolakoak...)	HNT1	- Kultur Etxea - Jubilatuen elk	Urtero
5.1.11.- Etorkinak euskarara hurbiltzeko egitasmo eraginkorrak sustatzea (irakaskuntzaren, aisialdiaren zein euskalduntzearen ikuspegitik)	5.1.11.1.- Etorkinekin “bikote linguistikoak” egitasmoa garatu	Eusk. zinegotzia	HNT1 Lanbide Mankomunitatea Euskaltegiak EPA	Urtero

## 6.- Arlo sozio-ekonomikoa

ESEP - EKINTZAK	AZPIEKINTZAK (EBPNren arabera egindako dinamizazio saioretatik hartutakoak)	Ardurad	Laguntzaileak Eragileak	Noiz Urteko sasoia
<b>6.1. Euskara planak zabaltzeko babesa eta laguntza ematen jarraitzea eta dirulaguntzen sistema etengabe hobetzea (Toki erakundeak)</b>				
6.1.3.- Enpresa pribatuen lankidetzaren areagotzea komunikazio kanpaina egokien bidez AZPIEKINTZA	6.1.3.1.- Merkatari eta ostalari elkartearekin eta Buy Urdaibai erakundearekin bilgunea sortu eta hitzarmena sinatu, guk euren foroetan eta eurek gureetan parte hartzeko (elkar laguntza)	Eusk. Zin.	- HNT1 - Eusk. dinam. - Merk. Elk. - Buy Urdaibai	2014
	6.1.3.2.- Ezagutzera eman euskararen erabilera normalizatzeko udalean bertan eta beste erakundeetan eskaintzen diren aukera eta programak: dirulaguntzak errotuluak euskaraz jartzeko, laguntza teknikoa itzulpenetarako...(hitzarmengintza)	Eusk. dinam.	- Artez - HNT1	Urtero (batzuk)
6.1.4.- Enpresa txiki eta ertainetan planak garatzeko aukerak eskaini eta areagotzea	6.1.4.1.- HITZARGUNE kanpaina garatu enpresa txiki eta ertainetan (laguntza teknikoa, aholkularitza, Euskara planak...)	Eusk. dinam.	- Eusk. zin. - HNT1 - Bai Eusk. ziur	Urtero
	6.1.4.2.- HITZARAGUNE kanpaina garatu merkataritza eta ostalaritza arloan (diagnostikoa, laguntza teknikoa, aholkularitza...)	Eusk. dinam.	- Artez - HNT1	Urtero
	6.1.4.3.- Bai Euskarari ziurtagiriaren elkartearekin hitzarmena sinatu elkarlanareko Hitzarmena (5.1.3.1. ekintzarekin lotuta)	Eusk. Zin.	- Ziurtagiri Elk - HNT1 - Eusk. dinam. - Euskalgintza	Urtero
6.1.12.- Eragile nagusien arteko elkarlana sustatzea	6.1.12.1- Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluarekin hitzarmena sinatu elkarlanean kanpaina zehatzak burutzeko HITZARMENA	Eusk. Zin.	- Kontseilua - HNT1 - Euskalgintza	Urtero

<b>6.3. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak bermatzeko neurriak hartzea</b>				
6.3.2.- Jendeari begirako establezimendu edo zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten enpresek kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak modu progresiboan berma ditzaten neurriak hartzea, indarrean dagoen araubidea betearaziz eta horretarako enpresen aldetiko konpromisoa, partaidetza eta konplizitatea lortuz	6.3.2.1.- Kontsumitzaileen hizkuntza eskubideen eta enpresarien/merkatarien hizkuntza betebeharren inguruko kanpaina ( <b>Berria.- Bezeroei begirako sentsibilizazio kanpaina</b> )	Eusk. dinam.	- HNT1 - Artez	2015 2017
<b>6.4. Enpresen jardunean hizkuntza-irizpideak ezartzeko pausoak ematea</b>				
6.4.2.- Kanpoko irudian, idatzizko zein ahozko komunikazioan eta adierazpen publikoetan euskararen presentzia bermatu eta sustatzea	6.4.2.1.- Euskararen presentzia kalitatezkoa bermatu noizbehinka egiten diren feria, azoka edota merkatuetako kartel, ohar eta informazio orrietan. ( <b>EUSKARAZOKA</b> lehenengo zapatuetan, urriko azokak, Erdi Arokoa / Azoka arloarekin elkarlana)	HNT1	- URE elk. - Azoka arloa	Urtero
<b>6.8. Euskara enpresa munduan erabiltzeari prestigioa ematea</b>				
6.8.1.- Sustapen eta komunikazio ekintzak lantzea (kanpainak, esku-orriak, bisitak, hitzaldiak) hizkuntza kudeaketa egoki batek dakartzan onurak azpimarratzeko eta euskara kalitatearekin, lehiakortasunarekin eta ongi-izatearekin identifikatzeko	6.8.1.2.- Banan-banako elkarriketak egin merkatari eta ostalariekin paisaia linguistikoak euskararen erabileran duen eraginaz ( <b>hitzarmengintza, merkataritza eta osatalaritza</b> )	Eusk. dinam.	- Artez - HNT1	Urtero

## 7.- Aisia eta kirola

ESEP - EKINTZAK	AZPIEKINTZAK (EBPNren arabera egindako dinamizazio saioetatik hartutakoak)	Ardurad	Laguntzaileak Eragileak	Noiz Urteko sasoa
<b>7.1. Aisialdiko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera indartzea (Toki erakundeak)</b>				
7.1.1.- Euskarazko jarduerak bultzatzea bereziki haur eta gazteei zuzendutako ekintzetan	7.1.1.1.- Haurrentzako ekintzak antolatu: udako eskaintza (udaleku irekiak, udako ludoteka...); opor garaietakoa (tailerrak, informatika...); jolasak (herri-kirolak, jokoak...) - Udan ludoteka familiarra antolatu (“familia lehiaketa...”)	HNT1	- URE - Guraso elkart.	Urtero
7.1.3.- Aisialdiko eskaintza modu zabalean ulertuz (zinema, antzerkia, literatura, telebista, musika, etab.), euskarazko ekimenak adin tarte guztietako herritarrei zuzentzea	7.1.3.1.- Informazioa eman herritarrei euskarazko aisialdi eskaintzaz: triptikoak osatu, udaleko aldizkarian agertu, web orrian zintzilikatu.... <b>EUSK. WEB, KULTURA WEB, KULTUR ETXEKO TRIPT.</b>	HNT1	- Kultur Etxea - Gaztedi Saila	Urtero
	7.1.3.2.- <b>Kultura arloak aisialdirako egiten duen lana sistematizatu eta, hizkuntzari buruzko datuak aintzat hartuta, indize sistema bat eratzea balorazioak egiteko.</b>	Eusk. Zin.	- Kultura Zin. - Kultura Zuz. - HNT1	2015
	7.1.3.3.- Urte osoko gazte-programa planifikatu, diseinatu eta garatu. Ekintza berritzaileak bultzatu (“Asteburutetako aisialdia” eta “Gaztelekuko zapatuak”).	Gaztedi Zineg.	- HNT1 - Gazte Inform. - URE	Urtero
	7.1.3.4.- <b>Gazte Plana berpiztu edo ordezeko plan estrategiko bat eratu.</b>	Gaztedi Zin.	- Gazte inform. - Eusk. zin. - HNT1	2015
	7.1.3.5.- Kulturgintza lantzeko tailerrak antolatu: marrazkiak, idazketa, argazkigintza, zinema, bideoa, web bidezkoa, literatura, dantza, kanta... (Berbalagun, Gugazte!, Gazte Informazioa, Kultur Etxea...)	Kultura Zuz.	- Kultura Zin - Berbalagun - AHIZE tek. - HNT1	Urtero



7.1.4.- Adineko herritarrei propio zuzendutako aisia- eta heziketa-jarduerak antolatu eta zabaltzea	7.1.4.1.- Helduentzako aisialdi programa garatu (Kultur Etxea, Berbalagun, Goi-zale, Gernikazarra,...) <b>JARRAIPENA</b>	HNT1	- Kultur Zuz. - Berbalagun tek - Elkartek	Urtero
<b>7.7. Etorrinen integrazio zabala eta aberasgarria ahalbidetzeko euskarazko aisialdi programa egokiak antolatzea (Toki erakundeak)</b>				
7.7.1.- Aisialdi-programetan bertakoen eta etorri berrien arteko elkarguneak sortzea	7.7.1.1.- Etorri berrien integrazioa bideratutako aisialdi programak bideratu ( <b>Gugazte!</b> , <b>Gazterren</b> , <b>Eusliderrak</b> , <b>Biko linguistikoak</b> )	HNT1	- AHIZE - Urtxintxa - Mankomunitat	Urtero
	7.7.1.2.- Ekitaldiak antolatu herrialde desberdinetako ohiturak ezagutzera emateko: musika, janari, bestelako produktu, merkatu, dantza, kirol... edota beste gairen baten inguruan ( <b>Gugazte</b> , <b>Ideasur</b> , <b>Mankomunitatea</b> ,...)	AHIZE tekn.	- HNT1 - Ideasur - Inmigrazio tek	Urtero
<b>7.8. Kirolaren esparruko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera sendotzea (Toki erakundeak)</b>				
7.8.1.- Euskal Autonomia Erkidegoko nahiz lurraldeetako federazioetako jarduna euskalduntzeko plangintza egitea <b>AZPIEKINTZA</b>	<b>7.8.1.1.- Alkarbideko kirol lan-mahaiaren bidez, kirol federazioetan eragiteko bideak jorratu</b>	HNT1	- Alkarbide - Aldundia Kiro	2014
